

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza

info

Asteazkena, 2012ko apirilaren 25a. IX. urtea. 2.397. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Azken lau urteetan Larraulen egindako lana ospatuko dute eskola txikien festan

Ekainaren 3an izango da jai eguna; 3.000 pertsona inguru espero dituzte Larraulen eta horregatik eskolako arduradunek herri guztia lanean izango dela aurreikusi dute

‘Eskola txikiak, herri txikiak, 25 urtez bizirik’ lelopean urteurrenarekin bat egiteaz gain, eskolan «lortutako guztia» ospatu nahi dute herritarrekin ◉5



Abaltzisketak pasa zion jaia antolatzeko lekukoa, Larraulgo eskola txikiari, pasa den urtean. HITZA

## «Gure historiaren subjektu izateko eskubidea» berreskuratzeko ekitaldiak, Tolosan

Herriko hainbat eragilek Nafarroako Estatua ekarriko dute gogora maiatzak 3tik 26ra; azken eguneroko egun guztiko egitaraua prestatu dute, tartean Amaiur herriari harrera eginez ◉2

**Mario Rodriguez Vargas**

Greenpeace Espainiako zuzendari exekutiboa

## «Gaur egun dugun sistema energetikoa guztiz ez-eraginkorra da»

Gaur, ‘El planeta libre’ filma eta gero, egingo duten solasaldian hartuko du parte Tolosako Naturaldia jardunaldiaren barruan ◉3

## Herriko armariari buruz hausnarketa egingo dute Zizurkilen

‘1512-2012 Erresuma zaharrari keinua’ lelopean, askotariko ekitaldiak izango dira maiatzean ◉5



→ **Amaiera den hasiera irudikatudo Munitak.** Tolosako Arantza Munita sortzailearen zeramika lanak jaso ditu Aranburu jauregiak, eta bertan izango dira maiatzaren 19a arte. Besteak beste, erramatarraren garaikitik gaurdaino biziraun duen ‘terra sigillata’ izeneko teknika erabili du buztina lantzeko. ◉4